

ITZULPENA¹

Zuzentaraua:	2008/20/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko martxoaren 11koa, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko finantza-sistema erabiltzeari aurre hartzearen gaineko 2005/60/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez
--------------	--

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/20/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2005/60/CE, relativa a la prevención de la utilización del sistema financiero para el blanqueo de capitales y para la financiación del terrorismo, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 76/46, 2008/03/19koa*)»
2008/20/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 76/46, 2008/03/19koa)

2008/20/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko finantza-sistema erabiltzeari aurre hartzearen gaineko
2005/60/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO
KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatu eta, bereziki, haren 47.
artikuluaren 2. paragrafoa (lehen eta hirugarren esaldiak) eta 95.
artikuluaz aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena¹ aztertu
dute,

Europako Banku Zentralaren Irizpena² aztertu dute,

Tratatuaren³ 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE
Zuzentarauaren⁴ arabera, zenbait neurri Kontseiluaren
1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari⁵ jarraiki
onartu behar dira. Batzordeari esleituriko betearazpen-
eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu erabaki
horrek.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu
zuen. Horren bidez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako
prozeduraren arabera onetsitako oinarrizko egintza batean

funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko irispide
orokorreko neurriak hartzeko kontrolpeko arautze-
prozedura finkatu zen. Elementu horietako batzuk ezaba
daitezke, edo funtsezkoak ez diren beste elementu batzuen
bidez egintza hori osatu.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak
2006/512/EE Erabakiaren gainean kaleratutako
Adierazpenari⁶ jarraiki, kontrolpeko arautze-prozedura
Tratatuaren 251. artikuluko prozeduraren arabera hartutako
indarreko egintzei aplikatu ahal izateko, egintzok egokitu
egin behar dira, prozedura aplikagarrien bidez.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, 2005/60/EE
Zuzentaraua aplikatzeko neurriak har ditzan. Kapitalak
zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako
borrokarako aurrerapen teknikoak aintzat hartzea eta
Zuzentaraua era uniformean aplikatzen dela bermatzea dira
asmoak. Zehazki, helburu hauek dituzte neurriok:
2005/60/EE Zuzentaruaren eman diren definizio batzuen
alderdi teknikoak zehaztea, kasuan kasuko egoerek
kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko arrisku
txikia edo handia duten ebaluatzeko irizpide teknikoak
finkatzea, zuzentaru horretan xedatutakoa finantza-
jarduerak noizean behin edo oso modu mugatuan egiten
dituzten pertsona fisiko nahiz juridiko batzuei ez aplikatzea
bidezkoa den zehaztea eta Zuzentaruako zenbatekoak
egokitzea, egoera ekonomikoaren bilakaera eta nazioarteko
arautegiaren aldaketak aintzat hartuta. Irispide orokorreko
neurriak direnez eta haien xedea 2005/60/EE Zuzentaruaren
funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez
diren elementuez osatzea denez, 1999/468/EE
Zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen
kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) 2005/60/EE Zuzentaruak denbora-muga du finkatuta,
Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenerako.
2006/512/EE Erabakiaren gaineko Adierazpenean, hauxe
jakinarazi zuten Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta
Batzordeak: erabaki horrek konponbide horizontal eta
egokia eskaintzen diola Europako Parlamentuak
elkarrekin erabakitzekeo prozeduraren bidez onartutako
tresnen aplikazioa kontrolatzeko asmoari, eta, beraz,
betearazpen-eskumenak denbora-mugarik gabe eman
behar zaizkiola Batzordeari. Europako Parlamentuak eta

¹ EO C 161, 2007-07-13, 45. or.

² EO C 39, 2007-02-23, 1. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa —
oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren
Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

⁴ EO L 309, 2005-11-25ekoa, 15. or. Zuzentaru hori 2007/64/EE
Zuzentaruak —EBEO L 319, 2007-12-05ekoa, 1. or.— aldatu zuen
azkenekoz.

⁵ EO L 184, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE
Erabakiak —EBEO L 200, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

⁶ EO C 255, 2006-10-21, 1. or.

Kontseiluak, bestalde, beste hau adierazi zuten: ahalik eta bizkorren onartuko zituztela Batzordeari betearazpen-eskumenak eskuordetzeko azken data aurreikusten duten tresnetako xedapenak indargabetzeko proposamenak. Kontrolpeko arautze-prozedura abian jarri ostean, ezabatu egin behar da 2005/60/EE Zuzentarauan denbora-muga finkatzen duen xedapena.

- (6) Batzordeak aldiari behin aztertu behar du esleitu zaizkion betearazpen-eskumenei buruzko xedapenak ondo funtzionatzen ote duten, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak errazago zehaztu dezaten Batzordeari ezarritako eskumen horien eraginkortasuna eta prozedurazko betekizunak egokiak diren, eta eraginkortasun eta erantzukizun demokratikoak bermatzen dituzten.
- (7) Hortaz, bidezkoa da 2005/60/EE Zuzentaria aldatzea.
- (8) Zuzentaria honen bidez 2005/60/EE Zuzentarian egin diren aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozedurari bakarrik eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bere egin. Horrela, bada, ez dago ondorio horietarako xedapenik ezarri beharrik.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2005/60/EE Zuzentarian aldaketa hauek egin dira:

- 1) Berrogeigarren artikularen 1. paragrafoa honela aldatu da:

a) Esaldi hau kendu da: «41. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aurreikusi diren neurriak, Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 41. artikularen 2 bis paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 2) Berrogeigarren artikularen 3. paragrafoa honela aldatu da:

a) Esaldi hau kendu da: «41. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aurreikusi diren neurriak, Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 41. artikularen 2 bis paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 3) Berrogeita batgarren artikulua honela aldatu da:

a) Honako 2 bis paragrafo hau erantsi da:

«2 bis. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da».

b) Testu honek 3. eta 4. paragrafoak ordezkatu ditu:

«3. Beranduenez 2010eko abenduaren 31n eta, ondoren, gutxienez hiru urterik behin, bere betearazpen-eskumenei buruzko xedapenak berrikusiko ditu Batzordeak eta eskumen horien funtzionamenduari buruzko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txostenean, Batzordeak zuzentaria honi aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da bereziki, esleitu zaizkion betearazpen-eskumenen mugak egoki bermatzeko. Aldaketa egin ala ez erabakitzen denean, arrazoiak eman behar dira zehatz-mehatz. Beharrezkotzat jotzen bada, Batzordearen egikaritze-eskumenei esleipenari buruzko xedapenak aldatzeko lege-proposamena ere erantsiko zaio txostenari».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean zuzentaria hau.

3. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentaria honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren
izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ